

**HITZARMENA INSTITUTO VASCO
ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA /
BASQUE INSTITUTEREN ETA
URRUTIKO HEZKUNTZARAKO
UNIBERTSITATE
NAZIONALAREN (MADRIL)
ARTEAN**

Donostia, 2011koaren.....a

BILDURIK

Alde batetik, M. Aitzpea Goenaga Mendiola andrea, Etxepare Euskal Institutuaren izenean eta ordez, Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria izendatzen duen ekainaren leko 151/2010 Dekretuak eman zizkion ahalmenekin bat.

Beste aldetik, Juan A. Gimeno Ullastres jaun txit gorena, Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalaren errektore magnifika (unibertsitateak Madrilgo Bravo Murillo 38an du helbidea).

Alderdi biek hitzarmen hau sinatzeko behar besteko gaitasun legezkoa aitortzen diote elkarri.

ADIERAZTEN DUTE

I.- Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala hedapen handiko erakundea dela, eta bere Zentro Elkartuen sareari esker, bai Spainian eta bai Espainiatik kanpo presentzia handia duela. Horiek horrela, eta bere estatutuen 3. artikuluan ezarritakoaren arabera, aniztasun

**CONVENIO DE COLABORACIÓN
ENTRE EL INSTITUTO VASCO
ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA /
BASQUE INSTITUTE Y
LA UNIVERSIDAD NACIONAL DE
EDUCACIÓN A DISTANCIA**

En San Sebastián, ... de de 2011

REUNIDOS

De una parte, Dña. M. Aitzpea Goenaga Mendiola, en nombre y representación del Instituto Vasco Etxepare, de conformidad con el Decreto 151/2010, de 1 de junio, por el que se nombra Directora del Instituto Vasco Etxepare Euskal Institutua / Basque Institute.

Y de otra parte, el Excmo. Sr. D. Juan A. Gimeno Ullastres, Rector Magnífico de la Universidad Nacional de Educación a Distancia, con domicilio en Madrid, calle Bravo Murillo, 38.

Ambas partes se reconocen mutuamente capacidad jurídica suficiente para suscribir el presente Convenio, y a tal efecto

EXPONEN

I.- Que la Universidad Nacional de Educación a Distancia es una institución universitaria con amplia presencia, a través de su red de Centros Asociados, en el territorio estatal y en el exterior de España que, en esa condición y de acuerdo con el artículo 3º de sus Estatutos, manifiesta la vocación de

kulturala eta linguistikoa sustatzeko eta unibertsitate-komunitate zabal eta pluralaren sorrera errazteko asmo sendoa adierazten du. Komunitate hori zientziaren eta kulturaren inguruko ezagutzetan oinarrituko da, eta ezagutzok balioko dute bai loturarako eta bai Espainiako lurrarde eta herrialdeen aurrerapen zein elkartasunerako.

II.- Etxepare Euskal Institutua / Basque Institute Sortzeko eta Arautzeko den apirilaren 20ko 3/2007 Legearen, eta Etxepare Euskal Institutua / Basque Institutueren antolakuntza- eta jarduera-araudia onartzen duen maiatzaren 13ko 88/2008 Dekretuaren arabera, euskara eta euskal kultura, bere hizkuntza ofizialetako edozeinetan eta zeinahi adierazpen, euskarri, bide eta adierazmoldetan, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo sustatzeko, hedatzeko eta proietatzeko eskumenak Etxepare Euskal Institutuari dagozkio.

III.- Bat datozen borondate horien pean, eta euren jarduera eta eskumenekin bat, alde biek indarrak batzea erabaki dute euskara eta euskal kultura sustatzeko eta kultura komunikazioaren alde lan egiteko, Euskal Herrian, Estatuan eta Espainiatik kanpo.

Dagozkien eskumen-araudia eta prozedura onartuta, parte hartzaileek hitzarmen hau sinatzeko behar besteko gaitasun legezkoa aitortzen diote elkarri. Hona

promover la diversidad cultural y lingüística y de facilitar la creación de una comunidad universitaria amplia y plural, fundada en unos conocimientos científicos y culturales que le sirvan de unión y fomenten el progreso y la solidaridad de las regiones y los pueblos de España.

II.- Que, de conformidad con la Ley 3/2007, de 20 de abril, de Creación y Regulación del Instituto Vasco Etxepare Euskal Institutua / Basque Institute, y Decreto 88/2008, de 13 de mayo, por el que se aprueba el Reglamento de organización y funcionamiento del Instituto Vasco Etxepare Euskal Institutua / Basque Institute, corresponden al Instituto Vasco Etxepare las actuaciones relativas a la promoción, difusión y proyección, fuera de la Comunidad Autónoma Vasca, del euskera y de la cultura vasca en cualquiera de sus lenguas oficiales, manifestaciones, soportes, medios y formas de expresión.

III.- Que al amparo de dichas voluntades concurrentes ambas partes desean aunar sus esfuerzos, en el desarrollo de sus actividades y competencias propias, en pro del impulso del conocimiento del euskara y la cultura vasca y del favorecimiento de la comunicación cultural en el País Vasco, en el conjunto del Estado y en el exterior de España.

Aceptando las normas de competencia y procedimiento que les corresponden, ambas partes se reconocen la capacidad legal necesaria para suscribir el presente documento, que se regirá conforme a las siguientes

KLAUSULAK

CLÁUSULAS

LEHENA.- HITZARMENAREN HELBURUA

Hitzarmen honen helburua da euskara eta euskal kulturaren zein kultura komunikazioaren ezagutza, adierazpena eta hedapena sustatzeko lankidetza ezartzea, Espainiako gizartearren aniztasun kulturalaren eta linguistikoaren baitan, Espainian eta Espainiatik kanpo. UHUNak euskarazko agiriak lortzeko prestakuntza emango du eta azterketak egingo ditu. Hitzarmen honetatik kanpo geratzen dira UHUNak Euskal Autonomia Erkidegoan dituen Zentro Elkartuak. Zentrootan klaseak eman ahal izango dira baina Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila izango da agiri ofizialak emango dituen erakunde bakarra.

BIGARRENA.- LANKIDETZA EREMUAK

Lankidetzak prestakuntza-, komunikazio- eta ikerketa-jarduerak garatzea izango du helburu. Jarduerok alde biek batera ados jarrita garatuko dira, edo bietako batek proposatuta, beti ere beste aldearen onarpena baldin badute. Halaber, jarduera horiek euskara eta euskal kultura Espainiako gizartean hobeto ezagutzera eta baloratzera bideratuta egongo dira, Espainiako aniztasun kulturalaren eta linguistikoaren parte garrantzitsua diren aldetik.

Jardueron barruan, inongo mugarik gabe, hauek egongo dira: euskara eta euskal kulturako ikastaroak eta diplomak egitea, UHUNeko Hizkuntza-zentroaren

PRIMERA.- FINALIDAD DEL CONVENIO.

El presente Convenio tiene por objeto establecer las bases de la colaboración para promover el conocimiento, expresión y difusión del euskara y la cultura vasca y la comunicación cultural, en el seno de la diversidad cultural y lingüística de la sociedad española, en el territorio estatal y en el exterior de España. La UNED será centro preparador y examinador de los Diplomas de Euskara. De este convenio se excluyen los Centros Asociados que la UNED tiene en el País Vasco, donde se podrán impartir clases y entregar Diplomas, teniendo carácter oficial los otorgados por el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco.

SEGUNDA.- ÁMBITOS DE COLABORACIÓN

La colaboración tendrá por objeto el desarrollo de actividades de formación, comunicación e investigación, adoptadas por iniciativa conjunta o a propuesta de una de las partes y aceptada por la otra parte, dirigidas al mejor conocimiento y puesta en valor por la sociedad española del euskara y la cultura vasca como parte fundamental de la diversidad cultural y lingüística de España.

Dichas actividades podrán comprender, sin carácter limitativo, la elaboración de cursos y diplomas de euskara y cultura vasca en el marco del Centro Universitario de Idiomas a Distancia (CUID), que serán presentados al Instituto Vasco Etxepare para su reconocimiento y homologación

(CUID) markoa (agiri horiek Etxepare Euskal Institutuari aurkeztuko zaizkio eskumena duten aginte autonomikoek onespna eman eta homologazio akademikoa zein lanbideko aitor diezaien); aldizkariak eta lan zientifikoak argitaratzea; sinatzaileetako edozeinek edo lankidetzan aritzeko adostasuna adierazten duten beste erakunde batzuek topaketak, unibertsitateko ikastaroak, mintegiak, simposioak eta zientzia arloko kongresuak antolatzea; prestakuntza eta ikerketa sariak, fondoak eta bekak ematea; argitalpen espezialduak trukatzea, sinatzaileei lotuta dauden liburutegietako funts bibliografikoak sendotzeko, funts bibliografiko horiek hitzarmenaren helburuarekin zerikusi zuzena duten kasuetan.

Hitzarmen hau garatzeko edota egikaritzeko, Etxepare Euskal Institutuak Institutuko zuzendariaren,edo berak izendatutako pertsonaren bitartez jardungo du.

UHUNak, berriz, irakaskuntza- eta ikerketa-organoen zein Zentro Elkartuen bitartez jardungo du.

HIRUGARRENA.- IRAKURLEA

Helburu horrekin, Etxepare Euskal Institutuak UHUNEan aritzeko irakurle baten kontratazioa finantzatuko du.

Irakurleak honako eginkizun hauek izango ditu:

1. UHUNaren edo UHUNeko

académica y profesional por las autoridades autonómicas competentes; la edición de publicaciones y de obras científicas; la organización, por cualquiera de las partes firmantes o por terceras instituciones con las que acepten colaborar, de encuentros, cursos universitarios, seminarios, simposios y congresos científicos; la dotación de premios, fondos y becas de formación e investigación; y el intercambio de publicaciones especializadas que favorezcan la consolidación de los fondos bibliográficos, relacionados con las finalidades del Convenio, en las bibliotecas vinculadas a ambas partes firmantes.

Para el desarrollo y ejecución del presente Convenio, el Instituto Vasco Etxepare actuará por medio de la directora del Instituto o persona en quien delegue.

La UNED, a su vez, actuará a través de sus órganos docentes y de investigación y de su red de Centros Asociados.

TERCERA.- EL /LA TITULAR DEL LECTORADO

A tal fin, el Instituto Vasco Etxepare financiará la contratación de una lectora o lector para la UNED

La profesora o profesor desarrollará su labor bajo los siguientes parámetros:

1. Deberá cumplir las condiciones legales para ser contratada/o como

Fundazioaren bidez irakasle kontratatu edo elkartu modura kontratatua izateko beharrezko lege-baldintzak beteko ditu. Horretarako, lizentziatura izan beharko du, eta euskara eta euskal kulturan espezializatua.

2. Irakurleak bere egitekoari egokitutako obligazioak bete beharko ditu, baita Unibertsitateak berak egozten dizkion hauek ere:

a) CUID-eko programetako edukien eguneratze- eta egokitze-lanak egingo ditu.

b) BOGA metodoko ikasleez arduratuko da.

c) CUID-eko plataforma birtualaren ardura izango du honako ataletan:

- diseinua eta kudeaketa
- material didaktiko osagarriak
- foroen dinamizazioa
- ikasturte hasierako mailakatze-frogak

d) Erreferentzia-ikastetxerik gabeko ikasleen zalantzak argituko ditu. Ikasle horien ahozko ebaluazioetan lagunduko du.

e) Madrilen, kultur ekintza presentzialak eta irekiak programatu eta kudeatuko ditu.

3. Hala dagokionean, Madrilera joango da legeak ezarrita dituen aurrez aurreko eskolak emateko, edota UNED-eko arduradunek hala

profesora o profesor contratado o asociado a través de la UNED o de la FUNED. A tal efecto, deberá ser licenciada/o, con experiencia en la enseñanza del euskara y cultura vasca.

2. La persona que desempeñe el lectorado deberá cumplir las obligaciones que le correspondan de acuerdo con su función y que designa la propia Universidad:

a) Se encargará de la adaptación y puesta al día de los contenidos de los programas del CUID.

b) Será la persona responsable de los alumnos del método BOGA

c) Será la persona responsable de las siguientes áreas de la plataforma virtual del CUID:

- diseño y gestión
- materiales didácticos complementarios
- dinamización de foros
- elaboración anual de las pruebas de clasificación inicial

d) Atenderá las consultas de alumnos sin centros de referencia. Prestará asistencia en sus evaluaciones orales.

e) Programará y gestionará actividades culturales presenciales y abiertas en Madrid.

3. Viajará a Madrid para impartir sesiones presenciales y cuando así lo soliciten los responsables de la UNED.

4. Impulsará actividades complementarias on line para promover

eskatzen diotenean.

4. Euskal kultura sustatzeko eta zabaltzeko on line jarduera osagarriak.
5. Ikasturte amaieran, burututako atazei buruzko txostena idatziko dio UNED-eko arduradunari.
6. Era berean, trebakuntzarekin jarraitu ahal izango du.

y difundir el euskara y la cultura vasca.

5. Entregará al final de cada curso a la persona responsable de la UNED un informe escrito sobre las tareas realizadas.
6. Al mismo tiempo podrá continuar su formación.

CUARTA.- FORMA DE COLABORACIÓN

LAUGARRENA.. LANKIDETZA GARATZEKO ERA

I.- Sinatzaileek, euren kabuz edo horiek izendatutako menpeko organo edo erakundeen bidez, hitzarmen honen esparruan garatuko diren ekintzen programa landuko dute urtero.

Salbuespen gisa, aldeek urteko programan jasota ez dauden ekintzak ere onetsi ahal izango dituzte, eta horien inguruko erabakia eranskin modura txertatuko da, baldin eta diru-ekarprena handitzea suposatzen ez badu.

II.- Ekintza horiek garatzeko, UNEDek bere erantzukizunpean eta bere kargura honako jarduerak hartzen ditu:

- Euskara eta Euskal kulturako ikasketak eskainiko ditu UHUNeko Hizkuntza-zentroan (CUID). Ikastaroak 150 orduko modulutan garatuko dira, eta ikasle bakoitzak modulu bakarrean parte hartu ahal izango du ikasturteko.

I.- Ambas instituciones firmantes, por sí mismas o a través de los órganos o entidades dependientes de ellas que designen, elaborarán anualmente el programa de actividades que realizarán en el marco del presente Convenio.

Con carácter extraordinario, las partes también podrán autorizar actividades no incluidas en el programa anual, cuyo acuerdo se incorporará como anexo, siempre que no suponga el incremento de la subvención.

II.- La UNED tomará bajo su responsabilidad y a su cargo, con vista al desarrollo de dichas actividades, las siguientes actuaciones:

- Ofrecerá estudios de Euskara y Cultura Vasca en el Centro Universitario de Idiomas a Distancia (CUID). Los cursos tendrán una duración de 150 horas, y cada alumna/o no podrá participar en más de un curso por idioma en el mismo año.
- Realizará actividades de tipo cultural

- Euskal kultura zabaltzeko eta hedatzeko kultur ekintzak egitea, UHUNren urrutiko hezkuntzarako metodología erabiliz, legeak ezarritako aurrez aurreko eskolak emango diren arren. Helburua da unibertsitatearen jarduerak ez mugatzea irakaskuntzaren arlora, baizik eta ikasle kopuru nahiko handia duten zentroetan, Madrilen bezala, ikasleak euskal bizimoduarekin harremanetan jartzeko ekintzak garatzea ikasturtean zehar.
 - Irakaslearen esku beharrezkoa den ekipamendua jartzea (ikasgela, programan ikastaroa iragartzea).
 - Irakurleari lan-kontratua egingo dio eta horren arabera ordainduko dio.
 - Dokumentu honen bosgarren klausulan aurreikusitako gainerako jarduerak betetzea.
- para la divulgación y expansión de la cultura vasca, con la metodología a distancia propia de la UNED, aunque se realicen las sesiones presenciales que marca la ley. El objetivo es que las actividades de la universidad no se limiten a la enseñanza, sino que en aquellos centros donde el alumnado sea suficientemente amplio, tal como es el caso de Madrid, se realicen a lo largo del curso actividades que pongan en contacto al alumnado con la vida vasca.
- Pondrá a disposición del profesor/profesora el equipamiento necesario (aula, anuncio de los cursos en el programa).
 - Retribuirá al profesor/profesora, de conformidad con el contrato laboral suscrito al efecto.
 - Cumplirá las demás actuaciones previstas en la cláusula quinta de este documento.

III.- Proietktua aurrera eramateko, Etxepare Euskal Institutuak honako ekarpen hauek egiteko konpromisoa hartzen du:

- Etxepare Euskal Institutuaren ardura izango da irakurletzako titularrak, irakasle bisitariak, lanpostuaz jabetzeko beharrezko gaitasun akademiko eta linguistiko guztiak betetzen dituela ziurtatzea. Hala, irakurle postua betetzeko gutxienez hiru hautagai aukeratuko ditu, publizitatea, berdintasuna, meritua eta kapazitatea bermatuko dituen prozesu

III.- El Instituto Vasco Etxepare se compromete a efectuar las siguientes aportaciones para el desarrollo del Proyecto:

- El Instituto Vasco Etxepare se asegurará de que el/la titular del “lectorado”, la profesora o profesor visitante ostenta las competencias académicas y lingüísticas necesarias para hacerse cargo del puesto. Para ello, realizará una selección previa de al menos tres candidatos/as al puesto de lector/a, mediante un procedimiento que garantice la publicidad, igualdad, mérito y capacidad. Posteriormente, enviará a la UNED la relación de

baten bidez. Ondoren, UHUNi aitzin-hautetsien zerrenda eta aukeraketa egiteko erabilitako irizpideak bidaliko dizkio, Unibertsitateak postua beteko duen pertsona zein izango den erabaki dezan, beti ere Unibertsitatearen beraren ezaugarriak kontuan izanik.

- Euskara-irakurleari aholkularitza didaktikoa eskainiko dio eta beharrezko material eta baliabide didaktiko, linguistiko eta kulturalak emango dizkio, egin behar dituen jarduerak egiten laguntzeko.
- Irakurletzari eusteko diru-ekarprena egingo du. Diru-ekarpen hori egiteak ez du inola ere ekarriko irakurleak lan- edo administrazio-harremanik izatea Etxepare Euskal Institutuarekin.

BOSGARRENA.- EKARPENAK

I.- 2011-12, 2012-2013 eta 2013-2014 ikasturteetarako Etxepare Euskal Institutuak hamaika mila eta hirurehun euroko (11.300,00.- €) diru-ekarprena egingo du ikasturte bakoitzean, urteka honela banatuta:

2011	2012	2013	2014
5.650€	5.650€		

aspirantes y criterios determinantes de la preselección, para que ésta, atendiendo a las características de la Universidad, determine quién será la persona que ocupe el puesto.

- Prestará asesoramiento didáctico y facilitará la relación de material y de recursos didácticos, lingüísticos y de interés cultural necesarios para contribuir al desarrollo de la actividad docente que es necesario llevar a cabo por el lectorado de euskara.
- Hará una aportación económica para contribuir al mantenimiento del lectorado. Ello no conlleva que el/la titular del lectorado tenga relación alguna de tipo laboral o administrativa con el Instituto Vasco Etxepare.

QUINTA.- APORTACIONES

I.- Para los curso académicos 2011-2012, 2012-2013 y 2013-2014 la aportación económica del Instituto Vasco Etxepare se establece en once mil trescientos euros (11.300€) por curso académico, conforme a la siguiente anualización:

2011	2012	2013	2014
5.650€	5.650€		
	5.650€	5.650€	
		5.650€	5.650€
5.650€	11.300€	11.300€	5.650€

	5.650€	5.650€	
		5.650€	5.650€
5.650€	11.300€	11.300€	5.650€

Kopuru horrekin irakurle postua beteko duen pertsonaren soldata ordainduko da, bai eta aurrez aurreko eskolak emateko egin beharreko bidaien eta egonaldien kostua ere.

II.- Etxepare Euskal Institutuak Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalari dagozkion kopuruak UHUNeko Fundazioaren bidez ordainduko ditu, honen arabera:

- 2011ko ekitaldiari dagokion ordainketa hitzarmena sinatu eta gero egingo da.
- 2012 eta 2013 ekitalditarako bi ordainketa egingo dira. Lehena ekitaldi bakoitzaren hasieran egingo da eta urteko diru-laguntzaren erdia hartuko du (5.650€). Bigarren ordainketa, ekitaldi bakoitzeko irailean egingo da, eta urteko laguntzaren beste erdia hartuko du (5.650€).
- 2014 ekitaldian ordainketa bakarra egingo da urte hasieran.

Urteko ordainketa bakoitza egiteko, ezinbestekoa izango da aurreko ordainketa justifikatuta izatea.

III.- Etxepare Euskal Institutua izango da hitzarmenaren eta egiten dituen

Dicha cantidad cubrirá el sueldo de la persona que ejerza el lectorado, así como el coste de los viajes para impartir las clases presenciales y la estancia durante esos periodos.

II.- El Instituto Vasco Etxepare pagará las cantidades correspondientes a la Universidad Nacional de Educación a Distancia a través de la FUNED (Fundación UNED) de la siguiente manera:

- El pago correspondiente al ejercicio 2011, una vez firmado el Convenio.
- En los ejercicios 2012 y 2013 se realizarán dos pagos. El primero al inicio de cada ejercicio, y corresponderá al 50% (5.650€) de la cantidad total anual aprobada. El segundo pago en el mes de septiembre de cada ejercicio, y se efectuará por el 50% (5.650€) restante de la cantidad anual.
- En el ejercicio 2014 se efectuará un solo pago al inicio del mismo.

Para realizar cada uno de los pagos anuales deberá estar justificado el pago inmediatamente anterior.

III.- El Instituto Vasco Etxepare será la dependencia gestora de este Convenio y de las aportaciones que se efectúan.

IV.- La justificación de las cantidades correspondientes al curso lectivo 2013-2014 y del desarrollo del Programa se hará dentro del último semestre del ejercicio en

ekarpenen erakunde kudeatzailea.

IV.- Hitzarmena amaitzen den ekitaldiaren azken seihilekoan justifikatuko da 2013-14 ikasturteari dagokion diru-ekarpenaren kopuru osoa eta programaren garapena.

Justifikazio guztiak egiteko, unibertsitateak gastuen factura originalak edo fotokopia konpultsatuak aurkeztu beharko ditu, diru-kopuruak ezarritako helbururako erabili direla justifikatzeko. Ordainketen justifikazioarekin batera, irakurleen programak unibertsitatean izan duen kostu osoaren balantzea ere aurkeztu beharko da.

V.- Kontratua amaitu baino lau hilabete lehenago dagokion Zentroak eta Sailak bertan dagoen irakurleak egin duen lanari buruzko ebaluazio-txosten bat bidaliko du Etxepare Euskal Institutura. Gainera, txosten horretan ikasturteari buruzko memoria bat erantsiko da, irakurletzaren barruan egin diren ekintzak zehaztuz (emandako klaseak, matrikulazioa, ekintza kulturalak eta parte-hartzaileak).

Irakurlearen kontratua luzatzeko, aipatutako ebaluazio-txostenak aldekoa izan beharko du.

Txostena aldekoa ez balitz, kontratatzeko gehienezko epea agortu balitz, edota dagoen irakurleari kontratua luzatu beharrean, beste irakurle bat kontratatzea egokia litzatekeela erakusten duten arrazoiak baleude, unibertsitatea

el que concluya la vigencia del Convenio. Para ello la universidad deberá presentar las facturas originales o copias compulsadas de las mismas que acrediten el destino conforme y adecuado al objeto de este Convenio de tales pagos. Además, se acompañará un Balance del costo total del Programa de Lectorado en la Universidad durante el correspondiente curso académico.

V.- Cuatro meses antes de la finalización de cada contrato el Departamento y Centro afectado emitirá un informe de evaluación del trabajo realizado por el profesor lector o profesora lectora que acoge, remitiendo dicho informe al Instituto Vasco Etxepare. Dicho informe incluirá una memoria detallada de las actividades realizadas por el lectorado (clases impartidas, matriculación, actividades culturales realizadas y asistencia a las mismas...).

El informe de evaluación al que se ha hecho referencia deberá ser favorable para proceder a la prórroga del contrato del profesor lector o profesora lectora.

En el supuesto de que el informe fuera desfavorable, se hubiera agotado el plazo máximo de contratación al que se ha hecho referencia, o razones de oportunidad hiciesen conveniente la contratación de otro profesor lector o profesora lectora en lugar de proceder a la prórroga del ya contratado o contratada, la universidad se pondrá en contacto con la otra institución firmante del convenio, siempre antes del 31 de mayo para el año académico siguiente, al objeto de que proceda a realizar cuantos trámites sean precisos

hitzarmena sinatzen duen beste erakundearekin harremanetan jarriko da maiatzaren 31 baino lehen, hurrengo ikasturteari begira beharrezkoak diren izapideak egiteko, unibertsitatera bidali behar den irakurle berria aukera dadin.

Hala ere, kontratua luzatu ahal izango da hurrengo irakurlearen hautaketa amaitzeko egin beharreko tramite guztiak bukatu arte, euskara eta euskal kulturako ikastaroetan bete behar duen irakaskuntza-lanaren jarraipena bermatuta gera dadin

SEIGARRENA.- EZAGUTZEN ZIURTAGIRIA

Unibertsitatean ematen diren euskara-mailen ezagutza-probak antolatzeko eta horien ziurtagiriak emateko, Etxepare Euskal Institutuak dagokien erakundeekin akordioak sustatuko ditu. Edonola ere, probok antolatzen eta zabaltzen lagunduko du Unibertsitateak, eta antolatzeko beharrezkoak diren lokalak eta baliabideak jarriko ditu. Hori horrela dela ere, Unibertsitateak ere euskal hizkuntza eta kulturako klaseetan izandako parte-hartzea egiaztatuko du, UHUNeko Hizkuntza-zentroaren (CUID) markoa eskura dituen baliabideak erabilita.

para la selección del profesor lector o profesora lectora que se ha de enviar.

No obstante lo anterior, el contrato siempre será susceptible de prórroga por el período necesario para terminar con los trámites de selección del siguiente lector o lectora, al objeto de garantizar en todo momento la continuidad en la docencia asignada al mismo en los cursos de lengua y cultura.

SEXTA.- CERTIFICADO DE CONOCIMIENTOS.

El Instituto Vasco Etxepare se compromete a promover ante los órganos competentes los acuerdos necesarios para que se puedan organizar en la Universidad pruebas de conocimientos de euskara de los niveles que se imparten y, por el órgano competente se expidan los certificados correspondientes a dichas pruebas. En todo caso, la Universidad colaborará en la organización y difusión de dichas pruebas y aportará los locales y los demás medios necesarios para su organización. Independientemente, la universidad certificará la participación a las clases de euskara y cultura vasca con los medios que tiene a disposición en el marco del CUID.

SÉPTIMA.- SUPUESTOS DE INCUMPLIMIENTO.

El incumplimiento por la Universidad de las obligaciones señaladas, así como de cualquier otro supuesto de obligado

ZAZPIGARRENA.- HITZARMENA EZ BETETZEA

Zehaztutako obligazioak edota beste xedapen batek orokorrean ezinbestekotzat ezartzen duen beste edozein baldintza bete ezean, Etxepare Euskal Institutuari itzuli beharko dizkio jasotako dirua eta horren legezko korrituak.

Era berean, hitzarmena ez betetzat joko da Unibertsitateak ukatu egiten badu Etxepare Euskal Institutuak hitzarmen honen inguruan eskatutako informazioa.

Etxepare Euskal Institutuak hitzartutakoa betetzen ez badu, Unibertsitateak hitzarmena salatu ahal izango du eta eskubidea izango du dokumentu honen bidez Etxepare Euskal Institutuak salaketa-eguna arte konprometituta dituen diru-kopuruak jasotzeko.

ZORTZIGARRENA.- LAGUNTZEN BATERAGARRITASUNA

Hitzarmen honen babesean egiten diren ekarpenak bateragarriak dira Unibertsitateak helburu berarekin jaso dezakeen beste edozein diru-laguntzarekin, baina ez da onartuko proiekta gainfinantzatzea.

Proiekta gainfinantzatuko balitz, sinatzaileen diru-ekarpenak eta horien partidak bidezkoa den neurrian murriztuko dira, gainfinantzaketa hori saihesteko.

cumplimiento por así establecerlo con carácter general otra disposición, dará lugar a la obligación de reintegrar al Instituto Vasco Etxepare las cantidades percibidas más los intereses legales que procedan.

Igualmente se considerará incumplimiento por parte de la Universidad el hecho de negarse a facilitar cuanta información le sea requerida por el Instituto Vasco Etxepare en relación con la colaboración a la que se refiere este Convenio.

Caso de incumplimiento por el Instituto Vasco Etxepare, la Universidad podrá denunciar este Convenio, teniendo derecho a percibir de dicho Instituto las cantidades que en ejecución de este Convenio tuviese comprometidas hasta la fecha de su denuncia.

OCTAVA.- COMPATIBILIDAD DE LAS AYUDAS.

Las aportaciones que se realicen al amparo del presente Convenio son compatibles con cualesquiera otras que pudiera percibir la Universidad para idéntico fin, si bien no se admitirá la sobrefinanciación del proyecto.

En el supuesto que se produjese la sobrefinanciación del proyecto, las aportaciones de las partes suscriptores se reducirán en la partida procedente y en las cantidades oportunas a fin de evitar tal sobrefinanciación.

NOVENA.- COMISIÓN DE SEGUIMIENTO DEL CONVENIO.

BEDERATZIGARRENA.- HITZARMENAREN JARRAIPEN- BATZORDEA

Organo sustatzaileak Jarraipen Batzordea eratuko du eta hauak osatuko dute:

Alde batetik, UHUNeko Unibertsitate Koordinaziorako eta Hedapenerako errektoreordeak edo berak UHUNean izendatutako pertsonak, eta beste aldetik, Etxepare Euskal Institutua / Basque Institute-ko zuzendariak, edo horrek izendatutako pertsona batek eta Institutuko Euskararen Sustapen eta Hedapenerako Zuzendariak

Batzorde horren egitekoa izango da hitzarmena sustatzea, beraren jarraipena egitea eta, oro har, informazioa trukatzea, helburuak hobeto betetzeko.

HAMARGARRENA.- HITZARMENAREN ERREGIMENA ETA INTERPRETAZIOA

Hitzarmen hau betetzerakoan sor litzkeen interpretazio-auziak hasiera batean jarraipen-batzordeak konponduko ditu.

HAMAIKAGARRENA.- HITZARMENAREN INDARRALDIA

Hitzarmen hau sinatzen denetik 2013-2014 ikasturte akademikoaren amaierara arte balio izango du.

El órgano gestor creará una Comisión de Seguimiento, que estará formada, por una parte, por la Vicerrectora de Coordinación y Extensión Universitaria o persona en quien delegue de la UNED, y por la otra, por la Directora del Instituto Vasco Etxepare Euskal Institutua / Basque Institute, o persona en quien delegue, y la Directora de Promoción y Difusión de la Lengua Vasca del Instituto Etxepare

La funciones de esta Comisión serán impulsar el convenio, realizar su seguimiento y, en general, intercambiar información por un mejor cumplimiento de sus objetivos.

DÉCIMA.- RÉGIMEN E INTERPRETACIÓN DEL CONVENIO.

Las cuestiones de interpretación que pudieran plantearse en la ejecución del presente Convenio serán resueltas por la Comisión de Seguimiento.

UNDÉCIMA.- VIGENCIA DEL CONVENIO

El presente Convenio tendrá una duración desde su firma hasta el final del curso académico 2013-2014.

DUODÉCIMA.- EXTINCIÓN.

Además de la extinción por el vencimiento

HAMABIGARRENA.- IRAUNGITZEA

Hitzartutako epa amaitzen denean, hitzarmena iraungitzat joko da. Bestela ere iraungi ahal izango da, alderdietako batek hitzarmenaren amaiera iragarrita. Horretarako, amaitutzat jo baino gutxienez bi hilabete lehenago formalki jakinarazi beharko dio beste alderdiari.

HAMAHIRUGARRENA.- HITZARMENAREN HIZKUNTZAK

Hitzarmen hau euskaraz eta gaztelaniaz idatzi da.

Hitzartutakoarekin adostasuna adierazteko eta dena jasota gera dadin, alderdi egilesek dokumentu honen lau ale (bi euskaraz eta bi gaztelera) izenpetzen dituzte goiburuan zehaztutako tokian eta egunean.

**INSTITUTO VASCO ETXEPARE EUSKAL
INSTITUTUA / BASQUE INSTITUTE**

**M. Aitzpea Goenaga Mendiola
Directora**

del plazo convenido, el presente Convenio podrá resolverse por denuncia de cualquiera de las partes, que deberá ser comunicada formalmente a las otras comparecientes con una antelación mínima de dos meses a su efectividad.

DECIMOTERCERA.- LENGUAS DEL CONVENIO.

El presente Convenio se redacta en euskara y castellano.

Como prueba de conformidad, ambas partes firman este Convenio marco por cuadriplicado (dos ejemplares en euskara y dos en castellano) en el lugar y fecha arriba indicados.

**UNED en PARTETIK
POR LA UNED**

**Juan A. Gimeno Ullastres
Errektorea/Rector**